

1992ko APIRILaren 6ko URJENTZIZKO BILKURA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamabiko apirilaren seiean, gaueko bederatziak direnean, Alkatea: Belen Zabala Olano; Udalkideak: Jose Antonio Mintegi Arrate, Julian Zubeldia Aierbe, Mikel Zelaia Ezenarro, Castor Olaetxea Garaikoetxea, Ramon Bengoetxea Altuna eta Iñigo Arreseigor Bengoetxea; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Urjentzizko Bilkuran bildu dira, Santa Maria de la Asuncion Klinikaren egoerari buruzko mozioa tratatzeko.

Udalak, Santa Maria de la Asuncion Klinikak bere iharduera mozteak eragingo lukeen sanital egoera larriaren aurrean, izan ere, gure ustez guztiz pentsaezinezkoa da Tolosako eskualdea, dituen 62.000 biztanleak kontutan izanda, hauetako asko herrietatik urrun nekazal inguruetan, osasun asistentzia zuzenetik aparte gera daitekeenik, egun ziurtatuta daukaten bizitza kalitatean atzera egitea suposatuko bait luke.

Horregatik, Udalbatza honek, aho batez erabaki du:

1) Eskatzea:

- 1.1.- Santa Maria de la Asuncion Eritetxean osasun zerbitzu guztiek jarraituko dutenaren ziurtasuna, Osakidetza osatzen dutenekoan aldetik.
- 1.2.- San Kosme eta San Damian Klinika sendotzea, egonaldi luze eta ertainetarako zentru modura.
- 1.3.- Eskualdeko Zerbitzu Sanitario guztiak mantentzea eta hobetzea, gutxienez, beste eskualdeetan ematen direnak emanez.
- 1.4.- Tolosaldeko Ospital Komarkala eratzea dagoen azpiegituraz baliatuz.

2)

2.1.- Aurreko puntuetan aipatutakoa lortu ahal izateko, ahalegin guztiak jartzea, erabili behar diren bide eta ekintza guztiak erabiliz.

2.2.- Azkuna Jauna Eusko Jaurlaritzako Osasun Kontseilariari, onartutako mozioari buruzko ziurtagiria bialtzea.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du.